

Barbora Horáková Jolyri buruz

Zuzendaritza eszenikoa gizonaen esku egon den kotoa izan da betidanik. Ingurune horretan, talentuz gainezka datorren Barbora Horáková Joly emakume zuzendari gaztearen agerpen indartsua benetako gertakari garrantzitsua izan da Europan. Bere ikuskizunek kritikaren eta ikus-entzuleen txaloak jaso dituzte eta, duela denbora gutxi, Europan garrantzia hartzen ari den izar garrantzitsuenaren *International Opera Award* saria lortu du Barbora Horáková Jolyk.

Pragan jaio baina Suitzan bizi den Horáková Jolyk kantua ikasi zuen Pragan, Basilean eta Genevan. Lehiaketa eta fundazio asko irabazi ondoren, bere ibilbidea Basel eta Bienne Antzokietako agertokietan hasi zuen. Swiss Studio Operako kide da. Geroago, eszenan jartzea ikasi zuen Municheko Bayerische Theaterakademie August Everding izenekoan.

2012 eta 2015 artean Antzoki laguntzaile gisa aritu zen Basileako Theater Basel izenekoan, eta bertan maila handiko jendearekin egin zuen lan, David Bösch, Frank Hilbrich, Sebastian Nübling, Armin Petras, Vera Nemirova, Massimo Rocchi edo Georges Delnon, besteak beste.

Sarri askotan lankide izan duen Calixto Bieitok bultzatuta, artista independente karrera hasi du, eta bide horretan hainbat operatara heldu da, Munich, Madril, Paris, Nuremberg, Venezia, Anberes, Lyon, Geneva, Basilea, Leipzig, Brno, Londres, Hanburgo, Oslo, Schwetzingen Festpielen, Dresdner Musikfestspiele, etab.

2011n egin zuen bere lehenengo eszenan jartzea Neuchâtel-en, *La Voix Humaine* lanarekin. Orduetik hainbat proiektu zuzendu ditu Europa osoan, eta goraiamen eta sari garrantzitsuak jaso ditu, Opera panorama osoan hasi berri den figura azpimarragarriena izendatu zuen Londreseko *International Opera Award* (2018) saria barne. *Ring Award* ospetsuaren finalista izan zen eta *Graz Hiria Saria* lortu zuen bere zuzendaritza lan garrantzitsuarengatik.

Arriaga Antzokian ere erakutsi du bere maila, 2017an L'Orfeo ekoizpen lan propioa zuzenduz eta Leonard Bernsteini eskainitako *I hate music* kontzertu-omenaldian alderdi eszenikoak koordinatuz, 2018an. Une honetan, Arriaga Antzokiaren asmo handieneko proiektuetako bat ari da prestatzen: *Dido & Aeneas*.